

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Bete datuak ondoren emango diren argibideak kontuan hartuta.

0 atala Administrazioak beteko du.

Zenbakizko datuak eskuinera doituko dira, hutsik geratzen diren laukitxoak ezkerreko aldekoak izango dira, baten bat hutsik geratzen bada.

NANaren laukitxoa betetzeko adibidea:

		7	8	2	5	6	9	1	Z
--	--	---	---	---	---	---	---	---	---

1.- ESKATZAILEAREN DATUAK: Aita, ama, hartzailea edo tutorea izan daiteke, betiere seme-alabekin bizi bada eta urtebete badarama Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta, edo, egun EAEn erroldatuta badago eta azken hamar urtean bost urtez bertan etengabe bizi eta erroldatuta egon dela egiaztatzen badu.

- NAN/AIZ/pasaportea: Espainiako herritartasuna baduzu, NANaren zenbakia idatzi; izan ezean, zure pasaportearen zenbakia edo atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) jarri beharko duzu.
- Jaiotze-datari dagokionez, urtea jarri behar duzu lehenengo lau laukitxoetan, hilabetea hurrengo bietan eta, azkenik, eguna. Adibidea: 1980ko apirilaren 2an jaio bazara, 1980 04 02 jarri behar duzu.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

2.- ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK (aita/ama, hartzailea, tutorea, edo, halakorik bada, egungo bikotekidea): 1. ataleko arau eta irizpide berberak hartuko dira kontuan.

3.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK: Ezinbestekoa da urte bakoitzeko urtarilaren 1ean familia-unitatean bilduta dauden seme edota alaba guztien jaiotze-datak eta izen-abizenak idaztea. Ezinbestekoa da seme-alabaren jaiotze-data, abizenak eta izena adieraztea, letra argia erabiliz

- Sexuari dagokion zutabearen, laguntza sorrarazi duena semea bada, G letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi; neska bada, E letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Epai judicial baten ondorioz zuk edo zure oraingo bikotekideak badaukazue aipatutako seme edo alabaren zaintza edo tutoretza, **X** batez adierazi Zaintza edo Tutoretza izenburuko zutabearen, eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

4.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK: oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatutako modua.